

Izen
ematea
Tuentin!



izarren distira!

Leioako eta Erandioko gazteak adi!

12-18 urte bitarteko artista bila gabiltza!

KASTING-AK: urtarrilaren 20an eta 21ean

IKUSKIZUNAK HOBETZEKO IKASTAROAK URTARRILEAN!

SARIA: multi abentura ekintzak ala ikasbidaiarako diru-laguntza

GALA IKUSGARRIA: otsailaren 5ean, larunbata, 19:00etan

Kultur Leioan

Sarrera dohainik

AURKEZLEA: Itxaso Paia

eta gonbidatu bereziak!

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.izarrendistira.com



LEIOA - ERANDIOKO IZARREN DISTIRA

IZARREN DISTIRA TALENTU LEHIAKETA LEIOA ETA ERANDIOKO 12-18 URTE BITARTEKO ARTISTA BILA DABIL

Urtarrilaren 20an eta 21ean ospatuko diren kasting-etan parte hartzeko alde zuretzat izena eman behar da.

Leioa eta Erandioko Udalek Izarren Distira talentu lehiaketa antolatu dute beraien herrietako gazteen talentua saritzeko asmoz. Hautaketa proba honen bitartez 12-18 urte bitarteko gazteei ezkutuan duten artista distiratsua azalertzeko aukera eskaintzen zaie. Galan plaza bat eskuratu ahal izateko, alde zuretzat ikuskizun bat landu (bakarrizketa, antzezlan, kanta, dantza, bertsoak...) eta epaileen aurrean taldeka nahiz bakarka aurkeztu beharko dute. Gutxienez 2 eta gehienez 10 minutuko emanaldiak onartuko dira, hauek euskaraz izan behar dutelarik

Finalistak Ixaso Paiak otsailaren 5ean Kultur gidatuko duen Gala ikusgarriko protagonista nagusiak izango dira. Bertan, gazteentzako erreferente diren pertsonai famatuek osatutako epaimahaiak artista gazte arrakastatsuenak aukeratu eta sarituko ditu. Epaia erabakitze irizpide nagusiak ikuskizunaren originaltasuna, hizkuntzaren trataera, neska eta mutilen parte hartzea zein talde lana izango dira.

Leioa-Erandioko Izarren Distiran izena emateko talde bakoitzak oinarrietan zerrendatutako datu guztiak bidali beharko ditu, baita www.izarrendistira.com web gunean ikusgai dauden parte hartze arauak onartu ere.

Tuentin ere

Gazteekin hartu emana indartzeko asmoz, "Leioa-Erandioko Izarren Distira" orrialdea sortu da. Tresna honen bitartez argazkiak, bideoak partekatu zein zuzeneko komunikazioa sustatzeko aukera eskainiko da. Gazteen iritzia, proposamenak ezagutu eta talde izaera indartzeko bide berri bat Leioa eta Erandioko gazteen eskura.

- **Kasting-ak:**
 - Urtarrilaren 20an Kultur Leioako entsegu gelatan.
 - Urtarrilaren 21ean Astrabuduako Josu Murueta kultur etxeko areto nagusian.
- **Gala:** Otsailaren 5ean, larunbata, 19:00etan Kultur Leioan. Sarrera dohainik
- **Kontaktua:** leioaerandiokoID@gmail.com
- **Bloga ataria:** <http://www.izarrendistira.com>

<p>Antolatzaileak: Leioa eta Erandioko Udalak Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia Laguntzailea: Hamaika Telebista</p>

Euskara eta gozamena eskutik dantzan Izarren Distira Kasting eta Galan!